

Getxo >MEETING<



Getxo MEETING 01/18:

Zeure buruari egin behar dizkiozun sei galderak zure enpresak aurtan izango duen estrategia zehazteko.

Enpresak abioien modukoak dira: norabide bat eta aireportu bat izan behar dute. Hori izan zen aurreko bileran erabili genuen metafora. Izan ere, negozio propioa daukaten eta bakarrik lan egiten duten pertsona askori zaila egiten zaie enpresa-hegazkina gidatzea eta aldi berean horren barruan kafea zerbitzatzea; hala, zen norabidea galtzen amaitzen da askotan.

Aurreko saioa galdu bazenuen ere, agian egin nahiko duzu ariketa. Badakigu ez dela berdina; horregatik gonbidatzen zaitugu gure hurrengo bilerara, otsailaren 1ean.

1) Nor naiz eta zer egiten dut: erantzuna idazteak edo esateak definizioa birformulatzen lagunduko digu. Negozio bat eraldatzen den zerbait da, malgua dena eta modu naturalean aldatzen dena urteek aurrera egin ahala.

2) Egungo egoera: zure enpresaren egungo egoerari buruz idatzi; ikusiko duzu hurrengo galderarako laguntza jasotzen dela bertan.

3) Lortu nahi den egoera: zer lortu nahiko zenuke 2018. urtea amaitzen denerako? zer jarrera behar dut hori lortzeko?

4) Helburu orokorra eta hiru zehatzak: ahalik eta gehien zehaztu behar da.

5) Ekintzak, eman beharreko urratsak eta jende aliatua: zerrenda bat egin ezazu helburu horiek egi bihurtzeko hartu beharreko urrats nagusiekin; halaber, aurpegia jar iezaiezu ekintza bakoitzean lagun zaitzaketen pertsonari.

6) Zer daukat jada. inor ez da zerotik hasten; hori dela eta, komeni da hori lortzeko dagoeneko daukazun alderdiak idaztea (materialak zein immaterialak).

Hurrengo bilera, otsailaren 1ean, zure negozioarako ideiak eskuratzeari buruzkoa izango da, denon artean egingo dugun ideia-jasaren bitartez. Zure zain gaude!